



## XII. GAZTAÑERRE AZOKA

Azaroaren 10ean

**09:00etan**

XII. Gaztañerre Azokaren hasiera.

**10:00etan**

Baba Lehiaketaren hasiera karpan.

**11:00etan**

Umeentzat baserriko joko eta jolasen jaia.

**12:00etan**

Bihurriren erakustaldia. Marka berria.

Libreko bertso saioa: S.Lizaso eta X. Euzkitze, Erregetxean

**12:30ean**

Dantzari gazteen saioa

**13:00etan**

Abesbatza kalez kale. Jarraian XII. Gaztañerre azokako sari banaketa eta aiton-amona nagusien omenaldia.

**14:30ean**

Baba lehiaketako sari banaketa eta babajana, karpan

**18:30ean**

Xero Xieterekin erromeria, karpan.

**24:00ean**

Erromeria, karpan.

**Baba jana:**

(Tiketak salgai Iratxo goxodendan eta Gila, Gaztelupe eta Arrano tabernetan)

**Prezioa:**

**8 euro**

(azaroaren 3a baino lehen erosita)

**10 euro**

(azaroaren 3tik aurrera erosita)

**Menua:**

babak sakramentuekin, edaria, postrea eta kafea.

**Izena emateko:**

pilpilean@euskalnet.net

eta 943 75 13 04

(azaroaren 6a baino lehen)

Laguntzailea:



Sorailuzeko Udala

Antolatzaileak:



- Kultura: Antzerkia izango da azaroko barixaku denotan
- Entzutekuak: Misio Taldea herrialde pobretuen mesedetan

Sorailuzeko hamabostekaria 164. alea  
2007ko urriaren 26an

# @pil-pilean

Ba al ba bizitzarik hor?



**ENARA AGIRRE****AITOR MORILLO**

## PRAILE... ZER?

**Z**elan jua da zure udia? Zu be lanian ni bezela, ezta? Guk behintzat hartu dogu asti pixkat hondartzatik bueltatzoren bat edo beste emoteko. Bai bai, gu Debara jua-ten gara, nora bestela Plaentxiakuak izanda; hola herriko ezagun danekin elkar-tu eta Plaza Zaharrian bezela egon zeinke, baina hondartzan; ze ona, ezta? Hori bai, kontuz ibili bihar da bikinixa aldatu edo topless egitte-rakuan.

Baina badakizu zerk emon dos-tan atentziñua uda honetan? Debako kalietan Praileaitz izeneko kartel batzuk zeren eskina batzuetan eta nahiko ezkutuan. Zuk badakizu zer dan Praileaitz edo dana dalako hori? Ziero moskeauta interneten bila hasi eta, itxuria danez pinturaz betetako giza asentamentu bat ei da, oin dala 15.000 urte baino gehixaokua eta, Aranzadikuek diñuezez, sekulako balixua daukana. Esaten dabeze-nez, han gure arbasuek zeremoniak be egitten zittuen, eta horregaittik dare marguak paretetan.

Suposatzen da patrimonio aberatsa dala, baina zuk uste dozu benetan asko balioko dabela? Nik ez dakit ba ze esan, ze kantera baten onduan dao eta han behintzat lanian segitzen dabe jo ta sua. Hola jarraituta segittuan txikittuko dabe eztanda eta dinamita danekin. Zuk zerbait entzun dozu Mori? Zeozer gehixago baldin badakizu abixatu, bale? Penia izango zan eta ezer jakin aurretik txikittuko balos-kue. Eta astebururako ze plan? 🌀

“

**Gure arbasuek han zeremoniak egitten zittuen**

Enara Agirre

**Laster mendixa “especie en via de extincion”**

Aitor Morillo

”

**K**aixo Enara! Meritu faltarik behintzat ez dakazu! Euki dogun uda kaxkarra-kin hondartzara juatia erronka galanta! Nik aukeran mendixa, baina aurten ez bata ez bes-tia, ze egingo dotsagu ba! Eta bikinixa alda-tziana, azkenian ze da hobe? Top-less egittia ala hondartza guztian aurrian toailiak kristonak egittia azkenian haretara jausi eta berdin-berdin be dana ikusteko? Aukeran bigarrena, onduan dakazun lagu-nari gertatzen bajako behintzat!

Praileaitz diñozu? Uhhh... sinatu dot papelen bat kobazulo horren inguruan. Badaki-zu informaziñuan gizartian bizi omen gara-la baina inoiz baino desinformatuago. Egixa esan, gauza handirik ez dakit bai-na ideia batzuk bururatzen jataz asentamentua mantentzeko. Bate-tik, margo horrek marko politte-kin biltzia, geroz eta handixaguak hobe eta kanpoaldian gugenjaim antzeko eraikin bat egittia. Beste-tik arbasuen zeremoniak berreskuratu bihar dira parke tematiko modura, pasiak ordube-tero hamarretan hasitta. Sarrera dexente bat jarritta diru erreza. Hobe ideia honek asko ez aireratzia ze baten bateri seguru ondo irudi-ttuko jakola Praile Aventura sortzia!

Ba bai Enara, pena bat da aberrixan aztar-nak holan desagertzia! Udalaiz bera be des-agertzeko arriskuan! Halakorik? Martxa honetan nora goiaz?

Nere partetik astebururako plana mendira juatia, ze laster “especie en via de extincion” izendatuko dabe. 🌀

Goguan hartzeko

### Gauza gordea, urre gorri.

Esaera zaharra



## GUTUNAK

**Gutunak bidaltzeko, kexak edo eskerrak emateko, berriren bat kontatzeko, argazkiak bidaltzeko...**

pilpilean@euskalnet.net

**943 75 13 04**

**(utzi mezua)**

## PLAENTXIA.COM



### Ze egingo zenduke kaiñoi fabrikan?

#### BALIOANITZA Herritar bat

Nere ustez Donostian Tabacalerakin egin dan antzeko zeoze egittia ondo egongo zan. Haura be fabrika bat zan, eta gaur egun ekintza kultural ezbedinetarako erabiltzen da.

SAPAKo eraikina oso haundixa da, eta gauza ezberdinak egin leizke bertan: antzoki bat, gazte-leku bat, erakusketa gela ganorazko bat, musika taldiek ensaiatzeko lokalak,... baina horretarako dirua bihar da!

#### ZAHARRENDAKO LEKU APROPOSA Sapan langile izandakoa

(...) Lehengo tabernaren eraikinean, itxaropena; hurrengo eraikinean, eguneko zentroa eta bulegoak zeren lekuan, egoitza. Horrela edadeko guztiak, elkarrekin egongo ziran, parke erraldoi eta guzti kainaberak errekarra botatzeko...

Oingo egoitzan, gaztiendako etxebizitzak alokairuan eta itxaropenan kultur etxea

#### LOKALAK! Soraluzeko pare bat gazte

Guk lokalak jarriko genittuzke, neguan kalia hotz asko egitten dau eta hola ibiltzen gara txakur-oren pare. Gainera, herrixan zihar daren beste lokalak ez dozkuez alkilatzen gaztiori dana apur-tu bihar doula pentsatzen dutelako.

#### ETA MUSEO TXIKI BAT? Beste dantzari bat

(...) Kultur etxiaz aparte, nik kanoia fabrikian inguruan museo txiki bat be ingo neuke. Historixia, argazkixak, kontakizunak, makinaren bat edo beste... Politxa izango litzake: zer izan zan eta zertan bilakatu dan ikusteko eta bixak lotzeko aukeria emango zeban. (...)

## PIL-PILEAN

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04  
**e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.  
**Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563  
**Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartea ez du bere gain hartzen aldizkari-  
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZETIKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

**bittartetik**

Egoitz Unamuno

**Loraluze**

Oindala 4-5 urte elkarrizketa bat egittera jua ginan Pil-pileanetik Donostiara, Ametzagaina auzora. Grabadoria, galderak papelian, kamaria... sinistuta jua ginan geuk nahi genduanari kontestatuko zotsala. Je,je! Ez genduan ezagutzen Ramiro Larrañaga. Grabadorako zintak amaitu ziran, galderak be bai, bazkaldu genduan eta Ramirok segi. Politikia, kultura, jentia... zer ez! Hainbeste gauza buruan zela euki leikezen be! Gure herrixaren inguruko kontu asko kontatu zoskuzen, liburuan kabitdu ez jakozen kontu asko. Danak ez baina esandako batzuk geratu jatazen buruan.

Plaentxiara bisitan etorri zan baten penatuta geratu zala esan zoskun. Herri sarreraren daren seinaltetan "Placencia de las Armas" belztuta ikusi zebala eta pena hartu zebala. "Zela leike? zela borratu leike historia hola? Neu poztu nintzan gehixen Soraluze izena ofizial egin zanian, baina Placencia be geuria da eta ez dauka zentzurik geure historia hola ukatzerik".

Orduan etxatan akordau ezer galdetzerik baina gaur galdetzen dotsat neure buruari: "ze iritziko ete lotsake plaentxiarrak erabakiko balebe "de las Armas" kendu eta "de las Flores" ipintzia?".

**Lagunduz-Manos Comprometidas misio taldea****Noiz sortu zan taldea?**

Misio taldea beti egon izan da Soraluzen. Errelebia hartu genduanon berrikuntza izan zan herrialde txirotuetoako proiektuetan laguntzia. Eta hortara etorri zan Gaztañerretako postua.

**Zer lortu nahi dozue zuen ekimenekin?**

Munduko beste herrialde batzuetan dagan jendian bizimodua ahalik eta duinena izan dedin ahalegintzen gara. Horretarako, lurralde desberdinetan daren misiolarixeri gure laguntza emon izan dotsegu: Remigio Bolunburu (Taiwan), Jasone Lete (Txile), Ramon Berikua eta Ignacio Oregi (Japan), M<sup>a</sup> Eugenia Arizaga (Argentina), Berta Sierra (Dominikar Errepublikan), Antonio Guridi (Venezuela), Evarista Ariztimuño, M<sup>a</sup> Luisa Makinai eta Natividad Gallardo. Herritarren batek bultzatutako proiektueri be lagundu izan dotsegu.

**Zelako laguntzak emon izan dozue?**

2000. urtetik dihardugu proiektuekin kolaboratzen. Urte hartako diruakin hotz kamera industrial erostia lortu zan. Ordunik, Argentinarako ordenagailuak bialdu genduzen, Haitiko osasun etxe baterako odontologia materiala erosi, Haitin Hiesa daken umien zen-



tru baterako dirua bialdu, Lupusa dakan emakume bati hileroko medikamentuak erosi...

Bezperan jasoko dituzte herritarrek egindako gozoak

*"Benigo granja eskola bat lagunduko dogu aurten"*

**Zein proiektu izango da aurten batutako dirua?**

Benin herrialdian (Afrika) granja eskola bat martxan ipintzeko eta Guatemalako ikasle batzueri ikasketa bekak emateko izango da.

**Ze moduzko erantzuna jasotzen dozue herritarrengandik?**

Oso ona. Jende askok ekartzen doskuz berak egindako pastel, gaileta eta bestelako goxuak, bere borondatez. Aurten be eskatuko dogu ahal dabenak ekarri deitezela etxian egindako goxuak. Azoka bezperan, azaruan 9xan jasoko dittugu herritarrek egindako gozuak.

Horretaz gain, aurten bidezko merkataritzako produktuak eta Guatemalako artisautza izango ditugu salgai. ☺

**Ion Murgizu Pinturak****MARGOKETA OROKORREAN**

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Tlf.: 943 75 1324

Mug.: 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Udal Gobernuak bere lehentasunen berri eman dio Aldun Nagusiari



**U**rriaren 24an Gipuzkoako Foru Aldundiko Markel Olano Soraluze izan zen Udal Gobernuarekin batzartu eta herriko kontuen berri jakiteko.

Herrian egiten ari diren edo aurreikusita dauden lan batzuei buruz zenbait eskaera egin zizkion Gobernu taldeak Olanori.

Batetik, Sagar Errekako sarre-ran egitear dagoen errepide hegalaren ordez, industrialdeko zubiaren parean errotonda bat egitea proposatu zioten. Bestetik, Kiroldegi gainean egiten diharduten lanen inguruan, aurreikusita dauden kafetegia eta igogailu panoramikoa egin beharrean, diru hori kiroldegi barnea konpontzeko erabiltzea.

Udal Gobernuak bere lehentasunak adierazi zizkion; besteak beste, garraio publikoa hobetzea, kultur azpiegitura, eguneko zentroa, gazteentzat lokalak eta Ezoziko futbol zelaia berritzea.

Elizako lanak, Zaharren Egoitza eta jubilatuen etxea bisitatu zituzten. Elizaren berritze lanak finantziatzeko laguntza gehiago eskatu zioten, baita Zaharren Egoitzaren egoera hobetzeko ere.

## Trebidean ezingo da aparkatu

Udalak jakinarazi duenez, azaroaren lehenengotik aurrera debekatuta egongo da Oleatik Ezoz Bideraino doan errepidean aparkatzea, horretarako baimendutako lekuetan ez bada. Alde bateko edo besteko karrilak okupatzerakoan trafiko arazoak eta istripuak sortzen direla argudiatu du Udalak.

## Auzolan programarako teknikoa

Auzolan programan laguntza teknikoa emango duen arduraduna kontratatzeko lehiaketa publikoa egingo du Udalak eta azaro hasieran irekiko da epea. 7 hilabetean Auzolanen parte hartuko dutenei formazioa ematean datza lanak. Informazio gehiago Udaletxeko bulegoan jaso daiteke.

## Izurriteak saihesteko fumigatu egin dute herria

Orain dela aste bi hegazkin hori batek herriko baso eta inguruak fumigatu zituen, izurriteei aurre egiteko helburuarekin. Oso hegaldi baxuak egin zituen egun osoan zehar eta ikusmina sortu zuen herrian.

### ODOL-EMAILEAK OMENDU DITUZTE

8 soraluzetar omendu zituzten hilaren 21ean Arraten, 25 aldiz edo gehiagotan odola ematearren.

Pedro Mari Alberdi, Ester Altuna, Itziar Burunza, Jose Ramon Fariñas, Jose Antonio Gonzalez, Jose Luis Guridi, Aitor Prieto eta Luis Javier Uriarte.



iturria: Itziar Orégi



## TXOKO KAFETEGIA



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

Kalebarren 22 behea, telf: 943751789



## MENDIZABAL

### OKINDEGIA

Kalebarren, 10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE

# Azaroaren 10ean izango da XII. Gaztañerre Azoka

## Eibar kantuan jaialdiaren aurkezpena

Debarreneko Parkinson Elkar-teak Eibar Kantuan jaialdia aurkeztuko du Soraluzen, Duo Plaentxi eta Ventos de Saudade fado taldeak aurtengo edizioan parte hartuko dutelako. Aurkezpena urriaren 30ean Udaletxeko aretoan izango da goizeko 11etan.

## Itxaropenan ikastaroak eta txapelketak

Menpekotasuna duten nagusiak zela zaindu jakiteko ikastaroa egiten dihardute Jubilatuen Etxean. Aste honetan eta hurrengoan adituek arlo psikologiko, mediko eta sozialen berri emango diete, as-telehen, eguazten eta barixakuan bertaraturakoei.

Kartatxapelketarako izena emateko epea irekita dago. Karta jokoan tute, briska eta musean jokatu dute, azaroaren 12tik 16ra bitartean. 80 urtetik gorakundako bazkarirako apuntatzeko ere aukeria dago dagoeneko. Azaroaren 24ean izango da hau, zapatuan.

Aste biren buruan baserritarrek euren jakiak salduko dituzte, artisauek urtean zehar egindako lanak erakusteko aukera izango dute eta ganadua ikusgai izango da Gaztañerre Azokan.

## Purificacion Murua eta Felix Aizpiri, omenduak

Iriartegain baserriko Purificacion Murua eta Txurrukako Felix Aizpiri omenduko dituzte aurtentzen, baserritar aittitta-amama zaharrenak izatearren. Aurretik, betiko ekitaldiak bere horretan mantenduko dira. Goizeko 9etan emango zaio hasiera Azokari. Eguardi aldera, Sebastian Lizaso eta Xabier Euzkitzek bertsolariak, herriko dantzari gazteak eta abesbatzak euren saioak egingo dituzte Erregetzeko ohol-tza gaineratik. Bukatutakoan, sari banaketa egingo da.

## Plaza Zaharreen karpa bat egongo da

Berrikuntza nagusia Plaza Zaharreen ipiniko den karpa izango da. Bertan, AEKko talo postua, egun osoan taberna eta Galtzagorri Jai Batzordeak antolatutako ekitaldiak egongo dira. Urteroko



baba lehiaketaz gain, umeentzako baserriko joku eta jolasak egongo dira eta Bihurri aizkolariak munduko marka hobetzeko saiakera egingo du. 14:30etan babajan herrikoia egingo da, eta arratsaldeko 6 t'erdietatik aurrera Xero Xiete taldearen eskutik erromeriak alaituko du karpa barrua, afal ordura arte (Karpant bertan ogitartekoak emango dituzte afaltzeko). Gauerdian, berriz ere dantzaldia izango da ordu txikiak arte jarraitu nahi dutenentzat. 🌱

**Juan Mari**  
*Arraindegia*

**Eguneroko arraina eta konjelatuak**

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



**Kontulan Aholkularitza S.L.**

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkar-teak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

**MABE**  
ILEPAINDEGIA



**ESTETIKA  
SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE





### Euskaldunongandik hurbil!

Herrian dugun ONCEko txartelen saltokiko iragarkiak euskaraz daude. Askori ilusio berria pizteko balio du. Oraingoan boletorik erosi gabe saritu gaituzte.



### Zer egin?

“  
Ezagutzen ez duzun norbaitekin elkarrizketa hasi behar baduzu eta euskaraz dakien ala ez, ez baldin badakizu, galdetu; **EUSKARAZ BAI?**”



### Euskara deposituan.

Badirudi segurtasun ohar hau jarri duenak erdal hiztunentzat bakarrik jarri duela. Berak azaldu beharko du zergatik utzi dituen euskaldunen hizkuntza eskubideak deposituan.



Euskaldunoi askotan gertatzen zaigu ezezagun batekin berba egiten hasterakoan (telefonoz edo aurrez aurre), ez jakitea euskaraz dakien ala ez. Horrelako egoeren aurrean gaudenean, soluzioa ez da konplexuz bete eta gure izaera euskalduna ezkutatzea, naturaltasun osoz euskaraz badakien galdetzea baizik; **EUSKARAZ BAI?** Horrela jokatzuz gero, sorpresa on asko hartuko ditugu eta ez da arriskurik izango, askotan moduan, bi euskaldun, bata bestearen berri jakin gabe, erdaraz jarduteko.

## ALBISTEAK

### elebila

EUSKARAZKO BILATZAILEA

#### Elebila

Interneteko euskarazko bilatzailea

Interneten euskarazko edukietan bilaketak egitea erraztuko duen Elebila bilatzailea martxan da dagoeneko.

Euskarazko edukiak lehenestea da bilatzaile berriaren helburua. Izan ere, egun, eskura diren bilatzaileetan (Goggle...) bilaketa bat egiterakoan ingelesezko webguneak agertzen dira lehendabizi, eta beste hizkuntza handietakoak (gaztelera eta frantsesa, esaterako) ondoren. Batzuetan, euskara oso atzera geratzen da.

Arazo horri aurre egitearren, bilaketa euskarazko webguneetan egingo duen tresna sortu du Ixa taldeak eta Elhuyhar Fundazioak sortutako Eleka enpresak. Bittor Laskurain soraluzetarrak ere parte hartu du egitasmo hau garatzen.



### Euskararen eskubideen urraketak salatzen / bideratzeko

Behatokia 902 19 43 32  
www.euskararentelefonoa.com

Elebide 012  
www.euskadi.net/elebide

# Bolognatik jarriak

## I

Txiki-txikitan hasita  
ikastolara bisita  
lagunekin jolas egiteko  
bakarrik enaiz bizi ta!

## II

Enaiz ikasle alperra  
DBH, Batxilerra...  
azkenik unibertsitatera  
hau bai destino ederra.

## III

Bizitza hipotekatu,  
unian matrikulatu;  
zenbaitek kotxea erosteko  
ez du hainbeste pagatu!

## IV

Enpresarioen moda:  
matrikulen tasak gora.  
Nire ikasketen kontu norbait  
biziko da tripaz gora.

## V

Non daude nire lagunak?  
Zortziko mediadunak.  
Hemen ezin du ikasi guraso  
langile soilak ditunak.

## VI

Ze pena ta ze arraio,  
sikera ni hemen nago  
ta seguru izango naizela  
besteak baino gehiago!

## VII

Lehen eguna ze ariña,  
hau bai jente pinpiriña  
pentsamoldea desberdin dugu  
uniformea adiña.



Eneko Beretxinaga

## VIII

“Koka-kola”ren arbela,  
“Gallina Blanca”n jangela...  
oraintxe konbetzituta nago  
ondo zainduta gaudela.

## IX

Ordenagailu tokia  
bai dela gela handia!  
Ta zoko denetan kamara bat  
ETBren inbidia.

## X

Pasiloan seguratak  
kontrolatuz gure faltak  
eskerrak nire karpetakoak  
diren “Sony”ren pegatak!

## XI

Nahiz hasi nintzen gustora  
maiz damutu naiz gerora,  
erosi dute nire gogoa,  
kritika eta denbora.

## XII

Klasera naiz ailegatzten,  
han zortzi ordu pasatzen,  
etxera iritsi eta bertan  
segi ordu extrak sartzen!

## XIII

Hilabete jai urtean.  
Bo, jai... fabrika batean.  
Lan egitea zer den ikasi  
dut unibertsitatean.

## XIV

Hau hala izan ez bazan...  
sar Bologna kalabazan!  
Ta ea esnatzerik daukagun  
Euskal Uniaren plazan.





# Ogixa, betiko moduan?

Horixe esatera ohituta daude auzoetako denda txikietan. Auzokoak etxeko. "Ba al da bizitzarik hor?" galdetzen du Karidadeko Bentaren kantu batek. Bada bizitzarik herriaren erdigunetik urrunago dauden kaleetan?



"Oso denda eta taberna gutxi daude herri kanpokaldean"

## Herri txikia, zerbitzutan Htxikiago

Soraluze herri txikia da izan, baina are txikiagoa da zerbitzuen kokaguneei begiratuta. Erdigunean pilatzen dira ia denda eta taberna guztiak. Hori ez da berria. Baina azken urteetan erdigunetik urrunen dauden kaleetan zeuden denda eta tabernak ixten ari dira.

Sagar-Errekan ez dago bat ere, Ezosi Bidean denak itxi dituzten eta Zeleta-Kalonje-Estazio inguruan Bodega dago irekita, baina eskuz aldatu edo ixtekotan da. Txurruken aldea da saltoki ge-

hien disuena: denda bi eta taberna bi daude.

**3. dendarik zaharrena itxiko da.** Txurrukenen herriko 3. dendarik zaharrena dago, kooperatiba eta Salonen ostean. 60 urte daroiaz dendan Araceli Maiztegi, bere amak zabaldu zuenetik. Bere kargu, 48 urte. Ixteko asmoa du hilabete batzuk barru. "Errentan ipini edo bestela saldu egin beharko neuke, lokala neuria da eta", dio. Badago beste denda bat ere baina goizez bakarrik zabalitzen du.

Lehenago aldean bezero kopurua aldatu den galdetuta, "kaletik

inor ez dator hona, hemendik kalera bai", dio Aracelik. "Jendia kalera juaten da, kafetxo bat hartu, lagunekin egon, arraindegixa eta harategixa be badare... Lehen asko saltzen zan baina oin... auzua zahartu egin da. Gaztiak haundira juaten zarie."

Hasieretako kontuak ere aipatu ditu. "Lehenago kinzenara ordaintzen zeuben. Zenbat bidar jua naizen ni atia jotera zortetan daonari. Behin, umia nintzala, negarrez etxera diru bare. Baina orduan ez zeguan dirurik. Oin hobeto bizi da jendia, oin dendetan zorren libururik ez dago."



"pena haundixa emoten dosta dendia lagatziak"  
Araceli Maiztegi

Kantzatuta daguala adierazi digu Aracelik, “Badakizu zenbat karga erabili bihar dan? Eta zenbat urte gehixago hartu bihar dogu ba? Ez dakit zetan pasatu bihar doten hainbeste ordu, baina...”. Pena haundia ematen diola esaten du, lana uzteagatik baino lokala ixtearren. “Alperrik galdu edo hondatu egitten da”. Auzokoez ere igarriko dute hut-sunea. “Bezeruak esaten doste “Ze egin bihar dogu guk denda bare”, gehixenak nagusixak dira eta”.

**Javier Barkala, Asigor taberna**

Urtebete da Asigor zabaldu zutela. Ogia, opilak, janaria, pintxoak, bokatak eta tabernatxoak eskaintzen dituzte. “Inbertsio haundixa izan da baina arreak eta bixok hortan egin dogu apostua”, dio Javierrek. Bizi osoan saltzaile lanetan ibilitakoa da bera eta horrik etorri zitzaizen ideia. Txurrukenen ezartzearen arrazoa “herri erdigunia saturatuta dagoelako” izan dela azaldu du, “gainera, auzo haundixa da eta jende asko dago, eta hemen Araceliren dendia dago, baina... berriztu edo hil”.

Zabaldu zutenetik harrera oso ona izan dutela adierazi du Asigorren jabeak. “Harrera oso ona izan dugu. Auzo terapeutikoa da hau. Jende zoragarria dago hemen. Denak ondo konpontzen gara.”

Mesedeetako Amaren jaiak izan zenean ere, kolaboratzen saiatu zirela dio, “gure zerbitzuarekin” eta oso giro polita egon zela. “Oso ideia ona izan zen eta segi dezala urtero. Hilda zegoen jaiak berpiztu zen”. Taberna batek beti ematen du bizitasuna, eta horixe igarri du Javierrek. “Bata besteagatik galdetzen dute hemen, jendeak elkar ezagutzen du... gizarte balioa du”.

**Asun Nuñez, Estazio Bodega**

Bodega ireki zuteneko sasoiak gogoratu ditu Asunek, berau eskuzaldatzeko asmotan denean. “Oin 36 urte garaje bat izan eta beittu oin. Hasieran bazkarixak ematen nittuan eta baserritar asko etortzen ziran. Egunero 30 lagun nekazen”. Bere betiko lanari zergatik utziko dion galdetuta, “gaztia nintzanean danakin aurrera egiten neban, baina orain zahartu be egin naiz eta nerretzat asko da.” Inork bodegian kargua hartuko baleu, zabalik jarraituko leuke eta bizi-modua ondo etarako leukie; bestela, “ni jubilatziakin bukatuko da”, dio Asunek, “askok ez lagatzeko, ez lagatzeko” esaten dioten arren.

Egunero-egunero dago zabalik. Lehen asteburutan egun osoz izaten zen zabalik. “Jende asko etortzen da hona. Mobidu biharra dago. Baina oin ne-



*“tabernak bizitasuna ematen dio auzoari”*

**Javier Barkala**


katu egitten naiz.” Bezero gehienak ondo ezagutzen ditu. “Asko etxeak dira. 7retan jende asko etortzen da eta lan asko izaten da, baina “lasai lasai, etxingo dogu” esaten doste”.

Garai batean San Juan bezperako jaiak Asunek antolatzen zuen. “Txokolatiaz oparitu, bizkotxuak... politta izaten zan, dana apainduta, soinuakin umiak dantzan... Gizona gaixotu zanian laga neban eta bukatu zan. Su haundixa egitten zan lehen. Behin Don Jose Maria parrokoa zeguala, umeri karameluak botatzera jua nintzan. Eta orduan hasi nintzan. “Asun, sutarako gauzak ekarri bihar dira!” eta hola ibiltzen ginan. Etxerik etxe periodikuak eskatzen eta...”

*“Bezero asko etxeak moduan dira”*

**Asun Nuñez**





## Uga Arotz-Enea

ra  
xo  
Al  
bis  
tea



**I**railean Nafarroan, Etxarri Larraun herrian dagoen "Arotz - Enea" aterpetxean egon ginen. Mendira joan eta "Tomas-zulo" izeneko leizea ezagutu genuen eta, istorio interesgarri bat kontatu ziguten. Handik irtetzean demaseko txingorradak harrapatu gintuen eta, bakoitzak kapa handi bat jarri genuen babesteko. A zelako sustoa !!! Bueltan gentozela "Margarita" izeneko behi baten eta, beste animaliairen baten

hezurdurak ikusi genituen. Oso azalpen interesgarriak eman zizkiguten. Afal ondoren diskoteka eta jolasak izan genituen.

Hurrengo egunean Aldaltz izeneko herrixka batera joan ginen, eta bidean zegoen behitegi batean txahal jaio berri polit-politak ikusi genituen. Bazkal ondoren jolastu, oparitu zizkiguten naturari buruzko liburuak hartu, eta buelta. **PRIMERAN PASA GENUEN !!!** 🐸

Plis  
ti  
Plas  
ta

### ...gaurko jolasa?

1. Zertara jolasten dozu lagunekin?
2. Zertara jolasten dozu familixakuekin?
3. Ze jolas gustatzen jatzu/jatzun gehixen?

4. Zertara ez dozu/zenduan inoiz jolasten?
5. Zein jokutan ez dozu/zenduan inoiz irabazten?
6. Zein jokutan zara/zinan gairaitetzina?




**Alicia Garmendia**  
irakaslea

1. Kartetan
2. Kartetan
3. Posteka, Plaza Zaharrian
4. Futbolian
5. Karreretan
6. Ezertan bez



**Lewis Romero**  
ikaslea

1. Futbolian
2. Harrapaketetara
3. Futbolina
4. Partxisa
5. Karrerak egitten
6. Tenisian



## Ze egingo zinuke munduko pobrezia-kin bukatzeko?

### Zuk zer elkarbanatzen dozu?

Silvia Loscos, 11 urte



Laguntzak bialduko nittukez hemendik, kamioietan erropak eta janarixa. Nik neuk txiki dauzkaten erropak, bota biharrian, bihar dabenari emongo notsakez, adibidez.

Josu Gil, 11 urte



Nik lagundu egingo notseke jostailuak eta diru pixkat emonaz. Pobrezia asko dago Afrikan-eta, ez dabelako diru asko jasotzen lana egittiaren truke.

Lagundu, esate baterako, Afrikako umiak gaixotasunik (malaria eta) ez hartzeko. Dirua emon, janarixa eruan, putzu bat eraiki, ospitala... Nik edozer elkarbanatuko neuke.

Maite Garmendia, 11 urte



Aberatsak diranak dirurik ez daukeneri emon biharko lotseke, Afrikako herrialde askok ez daukelako janaririk, IHESA eta malaria daukelako. Nik dirua eta janarixa banatuko nittukez.

Markel Gustavo, 11 urte



## DENBORAPASA

### hizki zopa

Geziei jarraituz, espiralean, bi esaera zahar aurkituko dituzu. Ea gai zaren hauek aurkitu eta ozenki errepikatzeko.



# ZER TRISTEN DOTSAZU?

## Erosketarik egitten dozu herrixan?

Saltoki asko itxi dira herrian azken urteetan, baina berriak ireki ere bai. Hala ere, herria txikia izanda eskaintza ezin eskaria bestekoa izan.

**GLORI CABALLERO**  
Umezaina



**B**ai, herriko dendetan erosten dogu, danetan pixkat. Erosketa haundixak hilian behin egitten dittut eta leku haundixetara juaten naiz. Erropak eta be, kanpua izan bihar dira, beste aukerarik ez dago.

**Mikel Saiz**  
Fabrikako langilea




**E**guneko erosketak bai, baina luze irauten dabean produktuak saltoki haundixaguetan erosten dittugu, danetik daguala badakigun lekuetan. Preziuak be merkiaguak izaten dira.

**RAQUEL FULGENCIO**  
Administraria




**B**ai, harategira, arraindegira, frutadendara... herrixan bertan. Luze-rako izaten diranak, olixua, jaboia, kontserbak, esnia... erosteko Eroskera-eta juaten gara.

**JON AGIRRE**  
Mekanikoa



**N**ormalian amak egitten dittu, baina ixa beti herrixan. Batzuetan lanetik bueltan Eroskin be bai. Erropak eroatera bai, oso noizian behin kanpora juaten naiz, Eibarrera edo ingurura.

KOMIKIXA



**Karta enkarguz,  
jaunartzeak  
eta bataioak**

**EDURTZA Kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Sorluze

Javier Alonso Zelaia  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K. Z. 20.000.434



**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13


### Gaztañerretako babajane-rako tiketak salgai daude



Gaztañerre Azokan urtero izaten den herri babajanera joan nahi dutenek tiketak eskuratu ditzakete iadanik. Babak sakramentuekin, edaria, postrea eta kafea emango dira bazkaritan. Iratxo goxodendan eta Gila, Gaztelupe eta Arrano tabernetan daude salgai. 8 euroko prezioa izango du azaroaren 3a baino lehen erosita, eta 10 euro azaroaren 3tik aurrera erosiz gero.

### Yoga ikastaroak hasi dira

Astelehenetik eguenera izaten dira yoga klaseak kiroldegiko erakusketa gelan, goizez 10etatik 11:30etara eta iluntzean 20:30etatik 22:00etara. Izena emateko bi irakasleetako batekin harremanetan jarri behar da, Jabi (615769110) edo Sabinekin (696220940).



## “Ezker eskuma” eta “Izerdi patsetan” izango dira euskarazko lanak antzerki zikloan

Euskarazko bi eta gaztelera-zko beste bi antzezlan eskainiko dituzte Udalak antolatutako aurtengo antzerki zikloan. Azaroaren 9an hasita barixakuro ikusgai izango dira gaueko 22:15ean liburutegiko hall-ean.

**Azaroaren 9an “El hijo que vino sin pan”** bakarrizketa umoretsua izango da. Ernesto Caballeroren gidoia eta Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean, Edurne Agirrezabalak ama batek unibertsitatean ikasten duen semearekin duen harremana kontatuko du.

**Azaroaren 16an Patxo Telleriaren “Izerdi patsetan”** antzezlan eskainiko dute. Txalo teatroko Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktoreak negozio gizon bat eta mutil gazte baten lekuan jarriko dira, eszenatoki berean oso beselako bi mundu batzeko.

**Azaroaren 23an Aizpea Goenagaren “Ezker eskuin”** obraren aurrestreinaldia izango da ikusgai. Loli Astoreko eta Ikerne Goikoetxea antzezleek Rosa

eta Sararen bakardade eta adiskidetasunak kontatuko dituzte, emakumeon eguneroko borroka azaleratuz.

**Azaroaren 30ean “Busco novio formal... que marido ya tuve”** gaztelaniazko lana eskainiko du Glu glu producciones antzerki taldeak. Antzezlaneko protagonistak lau haizeetara zabalduko du senarrarekin nekatuta dagoela.

“Izerdi patsetan” antzezlaneko eszena bat.



## Gurasoentzako jolas ikastaroa

Inguruko udalekin batera antolatu du Soraluzeako Udalak 3-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako jolas ikastaroa. Etxeko txikienekin jolas-teko jolasak erakutsiko zaizkie gurasoei. Urtxintxa eskolako

begiraleak izango dira ikastaroa ematearen arduradun. Azaroan egingo dira saio guztiak, hilaren 8,15,22 eta 29an. Matrikulazio epea hilaren 25a arte daukagu zabalik.

## GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta  
pintxo  
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



## kutxa

gizarte ekintza

## Soraluzetik Bergararainoko Antxixika Krosa azaroaren 3an egingo da

Soraluzetik Bergararainoko Antxixika Krosa azaroaren 3an egingo da. Behobia-Donostia baino astebete lehenago izango da Antxixika krosa, han parte hartuko dutenei forman jartzeko aukera emanez. Arratsaldeko 5etan irtengo da Soraluzeko Plaza Zaharretik eta 10 kmko ibilbidea egin ostean, Bergarako frontoian bukatuko da korrikaldia. Gaztetxoek 16:00etan izango dituzte probak Bergarako frontoian.

Soraluzen Kiroldegian eman daiteke izena edo krosa@antxixika.org helbide elektronikoan. Aurrez izena emanez gero, 5 euro balioko du, egunean bertan 10 euro. Parte hartzaileek kamiseta bana jasoko dute eta opariaren zozketa egingo dute bukaeran.

## Kirol arduradun berria Maria Gallastegi izango da

Aste bi daramatza Maria Gallastegi eibartarrak arrak Udaleko kirol dinamizatzailer lanetan. Aurretik zegoen Aduna Badiolak bere lanpostua utzi zuen eta Mariak hartu du bere lekua. Kiroldegia, Eskola kirola programa eta kirolarekin lotutako kontuak hartuko ditu bere gain.



### EMAITZAK

#### PILOTA

Titin III – Laskurain 21  
Irujo – Goñi III 22

Eugi – Laskurain 22  
Capellan – Nalda III 13

#### FUTBOLA

Lagun Onak 4 – Sora 2 (Erreg.)  
Sora 1 – Eibartarrak 8 (Jub.)  
Eibartarrak 5 – Sora 1 (Kad.)

Sora 1 – Ilintxa 0 (Erreg.)  
Arrasate 10 – Sora 0 (Kad.)

### AGENDA

#### MENDIA

##### Marraskilo Tour 2007

Zapatuan, hilak 27, goizeko 6etan Plaza Barritik hasita Soraluzeko mendi itzulia egingo da.



#### FUTBOLA

Zapatua 27, 16:00etan  
Zumarragan  
Urola – Sora (Erreg.)

Zapatua 27, 15:00etan Azpeitian  
Ikasberri – Sora (Jub.)

Zapatua 27, 11:30ean Ezozin  
Sora – Arizmendi (Kad.)





# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Margarita Maiztegi

## ERROMERIXARAKO SARRERAK SALTZEN

Uztailan 18xan tanborradako erreginan aurkezpena eta berbenia egitten ziran Sesma frontoian. Urteroko ekitaldixa izaten zan, Allegro elkartiak antolatuta. Ospakizun haundixa izaten zan eta jende asko juaten zan erregina zein auke-ratuko ete zeben jakin eta dantzan egittera.

Argazkixan hara sartzeko sarrerak saltzen agertzen dira Alejon harategixan.

Ezkerretik eskumara:

Juan Ignacio Beretxinaga, Juanito Urrestarazu eta Celestino Argarate. 📷

**DANTZA  
TALDEAREN  
50. URTEURRENEKO  
DVDa**

**Gaztañerre Azokan salgai!!**

Pil-bazkideentzat: **3 eurotan**  
Bazkide ez direnentzat: **6 eurotan**

- Dantza Taldearen historia argazkitan
- 50.urteurreneko ospakizuneko argazki muntaia
- 50.urteurreneko ospakizuneko bideoa
- Euskal jaietako bideo zaharrak eta berriak
- Argazki guztiak eskura artxibo batean



**SORALUZE • Errekalde kalea**



- 2 - 3 logelako etxebizitzak
- Garajeak
- Prezio interesgarriak

**KALITATE GORENEKO MATERIALEZ EGINAK**

**EZ IZAN ZALANTZARIK ETA KONTSULTA IEZAGUZU**

PROMOCIONES UNEBERRI, S.L.  
Tel. mob. 605 71 01 22  
Gila taberna ondoko  
lokalean aurkituko gaituzu!!

**AZKEN ETXEAK  
eta GARAGEAK  
SALGAI**



Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844

**www.clinicarecalde.com**



**SAN ANDRES  
ITURGINTZA**

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46



*Diseinua eta Formena*  
Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



tel: 943 75 20 81



**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE